



2009ko abuztuaren 19ko 145/2009 FORU AGINDUA, 2. artikulua:

1. Eskolako kirolaren kategoria bakoitzerako ezarrita dauden lurralde eremuak gainditzeko dituzten jarduerak antolatzeko edo halakoetan parte hartzeko baimena eskaerak eta, halaber, eskolako kirolaren programetan jasota ez dauden kirol jarduerak antolatzeko baimen eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu behar zaizkio, **jarduera horiek hasi baino bi hilabete lehenago gutxienez**, aparteko inguruabarren ondorioz aurrerapen laburragoaz eskatzea zuritua dagoenean izan ezik.
2. Gainerako baimen eskaerak, balioa izango dutenak dagokien eskolako kirolaren programako ikasturtea amaitzen den urteko abenduaren 31 arte gehienez, eskatu behar zaizkio foru organo horri berari, urte horretako urriaren 31 baino lehen.